

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 19tan, Udalbatzarra bildu da, Idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: Nekane Arrizabalaga

ZINEGOTZIAK :

Arkaitz Iruretagoiena Lertxundi	Iñigo Etxabe Azkue
Miriam Sarasola Eizmendi	Estibaliz Lizarreta Merino
Ahara Zuloaga Mintegui	Iñaki Telleria Astigarraga
Aitor Arregi Eizagirre	Hodeiza Sallen Molinero
Gontzal Alday Salaverria, eta	Irati Eizagirre Aguirre

Idazkari-Kontuhartzailea: Xabier Osa

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azalduko gertatu eta erabaki da:

Udalaren barne antolaketa.

Idazkariak hitza hartu eta Alkateak egin beharreko ekintzak zeintzuk diren azaldu ditu, Tokiko Gobernu Batzordeko kideak izendatzea eta Alkateordeak izendatzea.

Alkateak, bere aldetik, T.Gobernu Batzordearen esku uzten dituen eskuduntzak: hirigintza arloko erabakiak.

Alkateorde bakarra, Arkaitz Iruretagoiena izango dela azaldu eta gero, GOBERNU BATZORDEKO beste kideak izendatzen ditu, Esti Lizarreta, Iñigo Etxabe, Arkaitz Iruretagoiena ,Iñaki Telleria eta Gontzal Alday.

2.a) Udalaz kanpoko erakundeetako kideak izendatu.

Ondoren U.B ren esku dauden erabakiak hartzeari ekiten zaio.

Alkateak beste organoetako kideen izendapen proposamena luzatzen du, ondoren jasotzen den moduan:

Gipuzkoako Ur Kontsortzioa:	Alkatea
Urola-Kostako U.E :	Alkatea eta telleria (Ordezkoak:Iruretagoiena eta Alday)
Pagoetako Patronatoa:	Alkatea eta Iruretagoiena
GPS Fundazioa:	Alkatea
URKOME:	Alkatea
EUDEL:	Alkatea

Aho batez, erabaki da Alkatearen proposamena bere horretan onartzea.

2.b) Udal Batzarraren maiztasuna ezarri:

Aho batez erabaki da Udal Batzarraren bilera asteazkenetan arratsaldeko 19tan egitea, beti ere gutxienez 3 hilabeteko maiztasunarekin.

3.- Udal zinegotzien dietak eta alderdi-ordainketak erabaki

Alkateak eginiko proposamena onartu da , aho batez:

1. Zinegotziak: Alkateordea	126 € / hileko
Besteak	94.5 € / “
Bilerako	25,20 € / “

2. Alderdi politikoak : Alderdiko: 151,20 € eta zinegotziko: 60,80 €/hileko

4.- Alkatearen dedikazioa eta soldata maila erabaki

Alkateak bere buruari UDALHITZ hitzarmeneko 21 maila izatea defendatzen du, gaurko egunez duena. Eta liberazioa osokoa izatea proposatzen du.

Aho batez, erabaki da:

- a) Alkateak osoko dedikazioa izan dezan konpatibilidade deklarazioa formalki egitea, eta
- b) Soldata maila, UDALHITZeko 21. mailan ezartzea.

5.- Kontu Komisio Berezia eratu eta kideak izendatu

Aho batez onartu da, Kontuen Batzorde Berezia eratzea, T.G.B-ko kideekin.

Bilera, 19,20an bukatu da , eta bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, Idazkariak hau ematen du,

Aian 2019eko uztailaren 1ean.

IDAZKARI -KONTUHARTZAILEA